

DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO MUSEOA

La NAVE **SANTA MARTA**

NABEa

MUSEO DIOCESANO DE SAN SEBASTIÁN

Donostiako Elizbarrutiko Museoa
La NAVE **SANTA MARTA NABEa**
Museo Diocesano de San Sebastián

NAVE **SANTA MARTA NABEa**, 2015ean zaharberritu zuten Rafael Moneo eta Pedro Elcuaz arkitektoek; bertan jasoa dago Donostiako Elizbarrutiak XX. mendean zehar bildutako arte erlijiosoaren bildumaren zatirik oinarritzakoa. X. mendetik XXI.era bitarteko gure historia erlijiosoaren aztarna diren artelanak aurki daitezke bertan, eliza, ermita, komentu eta etxe partikularretatik hona ekarriak. Jainkoarekiko maitasuna eta senideekiko zerbitzua islatzen duten esanahi handiko irudi-ikonoetan adierazitako historia da.

Bilduma hau hiru ataletan eratua dago: *Erdiaroko artea*, *Arte Modernoa eta Arte Garaikidea*, eta Jose Ignazio Munilla jauna Gotzain dela aurkeztua da. Manuel Lekuona eta Jose M^a Zunzunegi izan ziren lan honi hasiera eman ziotenak. Gaur guri egokitu zaigu artelanetan gauzatua eta adierazia izan den gure Ondare erlijiosoa Gipuzkoan jasotzea. Arte lan horiek, sakonagoak eta ederragoak diren errealitateen *oroimen eta adierazpen* dira, bereziki. Historiaren bilakaeran gizakiak igaro izanaren oroimen. Haien poz eta nahigabeen, itxaropen eta minen adierazpen eta hizkera. Errukitsua eta Ederra den Jainkoaren eta haren adiskide Santuen isla.

Eskerrik asko gure aberaste eta gozamenerako Arte Lan hauek utzi dituzuen guztiei.

ERDI AROA: ERROMANIKOA ETA GOTIKOA
Kristautasunaren Bideak
X-XV. mendeetan

Gipuzkoa kulturen igarotze- eta gurutzatze-leku izan da historiaurretik. Kristautasuna, III. mendeaz geroztik hedatu zen merkatari-bideetan barrena eta Konpostelara doazen Donejakue bideetan barrena. Elizbarrutiek eta monasterioek kristau fedea eta Kristoganako eta Mariaganako, Santuenganako nahiz Eukaristiarekiko jaiera zabaltu zuten kristau elkarte txikietan, ermita, eliza, komentu eta monasterioetan artelanak utziz.

ARO MODERNOA: BERPIZKUNDEA ETA BARROKOA
Fede katolikoaren finkatzea eta une gorena
XVI-XVIII. mendeetan

Ordena mendikanteek –Frantziskotar, Domingotar, Mertzedarrio eta Agustinoek– aztarna handia utzi zuten gure herrian beraien debozioekin eta bizitza ulertzeko moduekin. Laztasuna eta bizitza erlijioso sakona predikatu zuten. Trentoko Kontzilioak ere (XVI. mendea) aztarna handia utzi zuen gurean: katekesia, predikua, Eukaristiarekiko jaiera, irudiak. Jesuitek, Karmeldarrek, Trinitarioek, Kaputxinoek, Klaratarrek, pertsona garrantzitsuak eman zituzten:

Loiolako Ignazio eta Xabierko Frantzisko, esaterako. Eta artearen inguruan ere eskultore handiak izan ziren: Pierre Picart, Juan de Anchieta, Ambrosio de Bengoechea, Lope de Larrea.

ARO GARAIKIDEA
Berritasunak eta Abangoardiak
XIX-XX. mendeetan

Napoleonen gudarosteak ez bezala, euskal Gotzain eta apaizak monarkiaren aldeko agertu ziren eta Liberalismoaren kontra. Eliz Desamortizazioa euskal tradizioaren eta nortasunaren aurkako zerbait bezala hartua izan zen. 1862an sortu zen Gasteizko Elizbarrutia, espiritualitatearen eta kulturaren gune izan zena. Deustuko Unibertsitateak eman zion behar zuen hezkuntza industriaren inguruko euskal gizarte berriari. Francoren diktadurak sortutako krisialdiaren eta Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren aukera berri handiak zabaldu ziren Elizarentzat eta Erlijio Artearentzat. Jorge Oteiza, Eduardo Chillida, Xabier Álvarez de Eulate, Nestor Basterretxea, Francisco Javier Sáenz de Oiza eta Rafael Moneo dira horren adierazpen nabarmenenak.